

# Arte eszenikoak

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



**Unibertsitatera  
Sartzeko Ebaluazioa**

**UPV/EHU**

**2017**

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.  
Ez ahaztu orri bakoitzean azterketaren kodea jarri behar duzula.***

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal):

### **1. atala. Obraren iruzkina eta analisia (4 puntu)**

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisia:

- b) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
- Antzerki-generoa (0,5 puntu)
  - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu)
  - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu)
  - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu)
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
- Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (0,5 puntu).
  - Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
  - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (0,5 puntu).
  - Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak.

### **2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu)**

Testu-iruzkina orribetekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (1 puntu).

### **3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak (3 puntu).**

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

## A AUKERA

**1. atala.- Iruzkina eta azterketa.**

**(4 puntu).**

*“Ernesto izatearen garrantzia”*. Oscar Wilde.

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina. (3 puntu).**

*“Uda-gau bateko ametsa”*ren kritika. William Shakespeare. Tanttaka Teatroa / Donostia 2016 Fundazioa. 2016ko ekainaren 27a, Artezblaik idatzia.

**3. atala - Termino tekniko hauek definitzea.**

**(3 puntu).**

1. Pantalone
2. Urruneratzea
3. Antagonista
4. Maskarada
5. Esperpentoa
6. Paradisua

## B AUKERA

**1. atala.- Iruzkina eta azterketa.**

**(4 puntu).**

*“Lisistrata”*. Aristofanes

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina. (3 puntu).**

*“Panpina-etxea”*ren kritika. Henrik Ibsen / Ángel Mirou. Arriaga antzokia. 2015eko urtarrilaren 8a, Carlos Gil Zamorak idatzia

**3. atala - Termino tekniko hauek definitzea.**

**(3 puntu).**

1. Stanislavski metodoa
2. Laugarren horma
3. Albo-hizketa
4. Pastoral
5. Commedia dell'Arte
6. Komedia-barla

**A AUKERA.- Iruzkina eta azterketa**

*“Ernesto izatearen garrantzia”.* Oscar Wilde.

ANTSELMO.- Autoa zain dago atean, jauna (*ARTXIBALDOk erregu-begirada bat luzatzen dio ZEZILIAri.*)

ZEZILIA.- Itxaron dezala, Antselmo..., bost minutu (*ANTSELMO agur esanda badoa*)

ARTXIBALDO. - Espero dut, Zezilia, ez duzula gaizki hartuko esaten badizut, zintzoki eta itzulingururik gabe, nire iritziz, kontzeptu guztiengatik, perfekzio absolutua bera zarela.

ZEZILIA.- Zintzotasun horrek ohoratu egiten zaitu, Ernesto. Eragozpenik ez baduzu, nire egunerokoan idatziko dut oharpen hori. (*Mahaira jo, eta egunerokoan idazten hasi.*)

ARTXIBALDO.- Nola? Eguneroko bat duzu, benetan? Edozer emango nuke begiratu bat emateagatik. Utziko al didazu?

ZEZILIA. - O, ez, inola ere ez! (*Koaderno eskwarekin estaltzen duela.*) Ulertuko duzu hau neska baten pentsamendu eta irudipenen kontakizun bat besterik ez dela eta argitaratzeko idatzia dagoela. Espero dut liburua argitaratzen denean ale bat erosiko duzula, bai? Baina jarraitu, mesedez, Ernesto. Oso gustukoa dut besteek esana idaztea. “Perfekzio absolutu”arenean geunden. Jarrai dezakezu.

ARTXIBALDO. - Eju! Eju!

ZEZILIA. - O, eztulik ez, Ernesto! Diktatzean, jarraian hitz egin behar da, eta eztul egin gabe. Gainera, ez dakit nola idazten den eztula. (*Idatziz doa ARTXIBALDOk hitz egin ahala.*)

ARTXIBALDO. - (*Oso azkar hitz eginez.*) Zezilia, zure edertasun liluragarri eta paregabea lehen aldiz ikusi nuenetik, zu ero-eroan maitatzen ausartu naiz, sutsuki, etsipenez.

ZEZILIA.- Uste dut ez duzula esan behar ero-eroan, sutsuki, etsipenez maite nauzula. Ez al zaizu iruditzen etsipenez horrek ez duela, nolabait esateko, zentzurik?

ARTXIBALDO. - Zezilia! (*ANTSELMO sartzen da.*)

ANTSELMO. - Jauna, autoa prest dago.

ARTXIBALDO. - Esaiozu datorren astean itzultzeko, ordu berean.

ANTSELMO. - (*ZEZILIAri begiratu ondoren, zeina zirkinik egin gabe baitago.*) Oso ondo, jauna.

ZEZILIA.- Uste dut osaba Joan ez dela asko poztuko jakitean datorren astera arte, ordu berean, gelditzekoa zarela.

ARTXIBALDO.- Bo, bost axola niri Joan! Jada munduan axola zaidan izaki bakarra zu zara. Biziki maite zaitut, Zezilia. Nahi al duzu nire emaztea izan?

ZEZILIA. - Tontoloa! Noski. Horixe baietz! Badira hiru hilabete harremanetan gaudela!

ARTXIBALDO. - Hiru hilabete?

ZEZILIA.- Bai, ostegunean beteko dira hiru hilabeteak.

ARTXIBALDO. - Baina... eta nola da harremanetan gaudelako hori?

ZEZILIA.- Bada, oso erraza da. Osaba Joanek esan zigunetik bazuela anaia bat gizagalduta hutsa zena, zu, normala den moduan, miss Primekin nituen elkarriketen gaia bihurtu zinen. Esan beharrik ez dago gizon batez hainbeste hitz egiten denean, azkenean beti erakargarri bihurtzen dela. Kontua zera da, Ernesto, erokeria izan ala ez, zutaz maitemindu nintzela.

ARTXIBALDO. - Ene maitea! Eta zer egunetan hasi ziren gure harremanak?

**A AUKERA.- Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.**

"Uda-gau bateko ametsa"ren kritika. William Shakespeare / Patxo Telleria. Tanttaka Teatroa /Donostia 2016 Fundazioa (Donostia, 2016-06-27).

<http://www.artezblai.com/artezblai/donostia-2016-y-tanttaka-teatroa-proponen-sueno-de-una-noche-de-verano.html>

Donostia 2016 Fundazioak eta Tanttaka Teatroak William Shakespearearen 'Uda-gau bateko ametsa' ekoizpena aurkezten dute; emanaldiak Donostiako Kristinaenea parkean egiten ari dira. Han gertatzen da Hermiaren eta Demetrioren arteko ezteia, non gonbidatu talde gisa parte hartuko duen publikoak eta oturuntzaz gozatzeko aukera ere izango duen.

Ingeles antzerkigilearen heriotzaren 400. urteurrenak ere bere tokia du Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburuaren programazioan. Shakespearearen komedia hau ekainaren 21az geroztik antzezten da gauero (astelehenetan izan ezik) 250 pertsonarentzat. Obraren 30 emanaldi egingo dira, 10 euskaraz eta 20 gaztelaniaz, uztailaren 24 arte. Obra, bestalde, nazioarteko publikoarentzat egokitua egongo da, ingelesaren eta frantsesaren tokia bermatuta.

*Esperientzia multisentsorial bat*

Ikuskizunak batu egiten ditu antzerkia, dantza eta musika. Hasteko, Hermia eta Demetrio obraren protagonistetako biren ezteiko gonbidatu bihurtzen dira ikusleak. Hala, bakoitza bere aulkian eserita, sukaldaritza-proposamen original batez gozatzeko dira obraren magian murgildu aurretik. Oturuntza muntaketaren lehenengo eszenaren parte da; beraz, publikoak, hasteko, otordua izango du, muntaketaren lehen uneak ikusi eta eskaintzen dizkioten ardoak dastatzen dituen bitartean. Proposamen gastronomikoa maitasunaren ondoz ondoko faseak birsortzeko diseinatua dago; beraz, flirteatzea, xuxurlatzea, grinatzea eta adiskidetzea islatuko ditu afariak.

Obra, bost ekitalditan zatituta, parkeko zenbait gunetan antzeztuko da; beraz, publikoak ez du ikusiko antzezpina ohiko moduan. Kriseilua eskuan, baso magikoaren zokomokoetan barrena ibiliko dira gertakizunen hariari jarraituz, non pertsonaia errealak eta fantasiakoak nahasten baitira. "Gipuzkoako hiriburuaren parkerik enblematikoenak ikuskizun berdingabe bat eskainiko du, antzerki hutsa gaindituta, non magiak eta fantasiak indarrak batuko dituzten zenbait diziplina artistikorekin ikusleak maitagarri eta aztikeriaz, maitasunez eta desengainuz betetako mundu fantastiko batera eramateko" diote ekoizleek.

*Egokitzapena*

Patxo Telleria arduratu da 'Uda-gau bateko ametsa' egokitzeaz Kristinaenea parkean antzezteko. Haren iritziz, idazteko orduan kontuan izan beharreko ezaugarri nagusietako bat eszenaratzea izan da. Obra ez da antzoki batean antzeztekoa, ohi den moduan. Basoa bera izango da jokalekua, eta, ibilbide bat denez, non ikusleak berak obraren parte baitira, zenbait faktorek baldintzatu dute testuaren idazketa. Horregatik, egokitzapena obraren garapenari lotua egon da hasieratik ekoizpenari dagokionez, eta, Telleriak berak dioen moduan, "obraren zuzendariekin batera egindako talde-lana funtsezkoa izan da".

Kristinaeneko parkean jokatzeko den obra, alderdi batzuetan, alden egiten da ingeles antzerkigilearen jatorrizko proposamenetik, baina ez bilbe nagusitik. Pertsonaia batzuk, hala nola Teseo eta Hipolita, desagertu egin dira, Shakespearearen obrako jatorrizko beste pertsonaia batzuetan jartzeko arreta. Gainera, nahiz eta kontuan hartu den "ingeles autorearen musikaltasuna eta edertasun literarioa", dio Telleriak, "hizkuntza lauago bat" erabili nahi izan da, "gure belarriari egokitua, antzezpeneren mesedetan". Egokitzaileren



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2017ko EKAINA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2017

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

iritziz, "literatura-itzulpenak behartu samarrak izaten dira, kartoizkoak balira bezala, eta hortik urrundu nahi izan dugu".

[...] Antzerki-esperientziaren soinu-banda hari-laukote batekin eta haize-boskote batekin eratzen da, Easo abesbatzaren ahots-akonpainamenduarekin osatuta.

**Eszena-zuzendariak:** Fernando Bernués eta Iñaki Rikarte – **Dramaturgia:** Patxo Telleria – **Musika-zuzendaria:** Iñaki Salvador – **Koreografia:** Jon Maya – **Antzezleak:** Isidoro Fernández, Ane Gabarain, Gorka Otxoa, Aitziber Garmendia, Sara Cozar, Vito Rogado, Miren Gaztañaga, Josean Bengoetxea, Jose Ramon Soroiz, Mikel Laskurain, Ramon Agirre, Naiara Arnedo, Aitor Beltran, Amankay Gaztañaga, Itziar Urretabizkaia, Ainara Ortega, Itziar Atienza eta Joseba Apaolaza. Gainera, nabarmentzekoa da Donostiako Arte Eszenikoen Tailerreko ikasle talde baten parte-hartzea, Ana Pérezek koordinatuta.

2017

**B AUKERA.- Iruzkina eta azterketa “Lisistrata”. Aristofanes**

*(LISISTRATA Akropolitik irteten da, ateak zabalduz.)*

LISISTRATA. Ez jarri palankarik inon. Neu irtengo naiz, inork ni behartu gabe. Zertarako barrak? Ez da barrarik behar, sena eta burua baizik.

KOMISARIOA. A bai, e, zerria halakoa? Non dago arkularia? *(Arkulariari.)*

Atxilotu eta lotiezazkiozu eskuak bizkarrean.

LISISTRATA. Ala Artemis, atzamar baten puntarekin ukitzen banau, larrutik ordainduko du, agente publikoa bada ere.

KOMISARIOA. *(Arkulariari.)* Zer, beldurra ematen dizu ala? Ez al diozu gerritik helduko -eta zu *(Beste arkulari bati)*, berarekin- eta bion artean lotuko behingoz?

*(KLEONIZE Akropolitik irteten da.)*

KLEONIZE. *(Lehen arkulariari.)* Ala Pandroso, ukitzen baduzu, nahiz eta eskuarekin baino ez bada ere, epelak hartu behar dituzu, txikitu egingo zaitugu.

KOMISARIOA. Begira, «epelak hartu behar dituzu». Non dago beste arkulari bat gehiago? *(Hirugaren arkulari bati.)* Lotu hau lehenengo, ze, gainera, ahohandi hutsa da. *(MIRRINA iristen da.)*

MIRRINA. Ala Luzifera, atzamar baten punta gainean jartzen badiozu, berehala eskatu beharko duzu bentosa bat.

KOMISARIOA. Zer gertatzen da? Non dago arkulari bat? *(Laugarren arkulari bati.)* Harrapa ezazu emakume hori. *(Emakumeei.)* Nik emango diet amaiera zuen irteerei, banan-banan.

LISISTRATA. Ala Taurika, harengana hurbiltzen bazara, ilea erauziz garrasi eginaraziko dizut.

*(Badoa arkularia.)*

KOMISARIOA. Oi, nire dohakabea! Eremutik joan da arkularia. Baina ez dugu inoiz etsiko emakumeen aurrean. Aurrera egin dezagun borroka-lerroan jarrita, eszitiarrok, joka hasi arte.

LISISTRATA. Ala jainkosak, orain jakin behar duzue gure artean badirela lau emakumezko-batailoi borrokarako prest, erabat armaturik, hor barruan.

KOMISARIOA. Bihurritu haiei besoak bizkarrean, eszitiarrok.

LISISTRATA. *(Gotorlekura zuzenduta.)* Emakume aliatuok, irten korrika barrutik; azokako ale-, pure- eta barazki-saltzaileok, ostalariok eta baratxuri- eta ogi-saltzaileok, ez al duzue arrastatuko, kolpekatuko, puskatuko? Ez al duzue irainduko eta ez al zarete lotsagabetuko? *(Erasora irteten dira emakumeak Akropolitik, eta eszitiarrak ihesi doaz.)* Gelditu jada, egin atzera, ez arpilatu. *(Lehen agertu diren emakumeak gotorlekura itzultzen dira.)*

KOMISARIOA. Ai, ene! Zein gaizki joan zaien nire arkulariei.

LISISTRATA. Hara!, zer uste zenuen, ba? Uste zenuen emakume esklabo batzuei eraso egiten zenielara? Ala zer uste duzu, emakumeek ez dutela adorerik?

KOMISARIOA. Bai, ala Apolo, eta adore handia, baldin eta inguruan tabernariren bat badago.

KORIFEO GIZONEZKOA. Alferrik isuritako hitz asko, lurralde honetako komisarioa. Zergatik liskarrean aritu pizti horiekin? Ez dakizu zer bainu oparitu diguten orain dela gutxi, arropa soinean, eta, gainera, xaboirik gabe?

KORIFEO EMAKUMEZKOA. Motel, hurkoari ezin zaio eskua gainean jarri ezer ez balitz bezala; hori egiten baduzu, nahitaez begiak puztuta edukiko dituzu. Izan ere, nik hemen geldi-geldi egon nahi dut, neska gaztetxo bat bezain zuhur, hemengo inor gogaitu gabe

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

eta lasto bat ere mugitu gabe, baina baten batek ezta xurgatzen badit, sumindu egiten naiz, liztor-habia baten moduan.

ZAHARREN KORUA. Zeus, nola tratatu behar ditugu munstro hauek? Ez baitago horrela jarraitzerik: aztertu behar duzu nirekin zer gertatzen ari den hemen, zer asmorekin eta zertarako bereganatu duten emakume hauek Malkarra, Akropolia, gaitzeko arroka, zeharkaezina, esparru sakratua.

KORIFEOA. Egin galderak, ez utzi limurtzen, kontra egin haiei ahal duzun guztia: lotsagarria litzateke horrelako gai bat bazterrean uztea, hartaz hitz egin gabe, eta aintzat ez hartzea.

KOMISARIOA. Ala Zeus hau da lehenengo gauza jakin behar dudana: Zertarako itxi duzue gure gotorlekua atalagekin?

LISISTRATA. Dirua ondo gordetzeko eta harengatik ez zaitezten borrokatu.

KOMISARIOA. Diruagatik borrokatzen gara, ala?

LISISTRATA. Bai, eta beragatik pizten dira gainerako istiluak ere. Zeren eta Pisandrok eta postu publikoen bila dabilzanek, lapurtzeko, beti iskanbilaren bat sortzen zuten. Beraz, haiek egin dezatela nahi dutena gai honetan, ze diru hau, behintzat, jada ezin dute harrapatu.

KOMISARIOA. Zer egin behar duzu?

LISISTRATA. Hori galdetzen didazu? Geuk gobernatuko dugu.

KOMISARIOA. Zuek gobernatuko duzuela?

LISISTRATA. Bai, eta zergatik harritzen zara? Ez al gara gu etxeko guztia gobernatzen dugunok?

KOMISARIOA. Baina ez da gauza bera.

LISISTRATA. Nola ez dela gauza bera?

KOMISARIOA. Diru hori kontuan hartuta egin behar da gerra.

LISISTRATA. Baina, ezer baino lehen, gauza bat: gerra ez da egin behar.

KOMISARIOA. Orduan, nola bestela egongo gara salbu?

LISISTRATA. Guk salbatuko zaituztegu.

KOMISARIOA. Zuek?

LISISTRATA. Bai, guk.

KOMISARIOA. Harrigarria!

LISISTRATA. Kontuan izan salbatuko zaituztela, nahi ez baduzu ere.

KOMISARIOA. Esaten ari zarena izugarria da.

LISISTRATA. Haserretu egiten zara, baina hori egin egingo da nolana dela ere.

KOMISARIOA. Ala Demeter, bidegabea da.

LISISTRATA. Babestu egin behar zaitugu, adiskidea.

KOMISARIOA. Nik eskatzen ez badut ere?

LISISTRATA. Hala, are gehiago.



**B AUKERA.-Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.**

“Panpina-etxea”ren kritika. Henrik Ibsen / Ángel Mirou. Arriaga antzokia (Bilbo, 2015-01-08)

<http://www.artezblai.com/artezblai/una-casa-de-munecashenrik-ibsenangel-mirou.html>

*Plano gurutzatuak*

Ariketa eszeniko hau Henrik Ibsenen obraren desmuntatze gisa planteatuta dago. Eta, horretarako, zenbait plano narratibo ezartzen dira, gurutzatuz joaten direnak eta ebakigune batzuk sortzen dituztenak, non eszenaratzea gauzatu behar den. Beraz, esperimendu bat da, proposamen ireki bat, itxi nahi dena zentzu global bat ematearren. Izan ere, publikoa ‘Panpina-etxea’ren entsegura joaten da, eta sormen-prozesu batek izaten dituen une motel, larri, errepikakor edo ekarpenez jositako horien partaide bihurtzen gaituzte.

Antzerkiaren haraindik plano horretan dago, beharbada, antzerkizaleekiko bizi-loturarik handiena; eta badago planteamendu funtzional bat ere, pertsona aktore eta gero pertsonaia bihurtzeko prozesuaren hipotesi positibistatzat har litekeena. Eta, gainera, hori egiten da aprobetxaturik aktoreetako bat telesail arrakastatsu batean modu jarraituan agertzen dela. Aktore guztiek, bakoitza bere izenarekin eta guztiek datu biografiko erreal bat ekarrita, entsegu baten prestaketa simulatzen dute, eta, azken batean, obrako pertsonaiak interpretatzen dituzte.

Esperimentuak freskotasunean irabazten duena jakina gertatzeko nolabaiteko joera batean galtzen da. Aktoreek Ibsenen obrari buruz, obraren funtsaren gaiaz, gure egunetara ekartzeaz eztabaidatzen dutenean aurkitzen dugu ahultasun nagusia. Didaktikoa da; azaltzen du, bere erara, muntaketaren ikuspegi etikoa, baina estetika nahasi batean galtzen da. Oso errealismo hurbileko, ia ustekabeko, uneak dira, asmoak nabarmentzea beste helbururik ez dutenak. Eta plano horretan jalgitzen da eztabaida bat sortzaile taldean, debate bat, errepikatzen duena, nolabait, obraren tesia, edo, gutxienez, eskaini nahi diguten –azpimarratzen dute– obraren ikuspegia.

Baina dena entseguan –hau da, Ibsenen testuan– bideratzen denean, gainbehera doa. Badira ondo lortutako uneak, baina azken eszena, gailurra, ez da behar bezala biribiltzen, bideratzen, behar duen mailan. Kasu egin behar diogu, beharbada, Ramón Ibarri, hau da, haren aktore-paperari, zuzendaritari adierazten dionean entsegua ehuneko berrogeian egingo duela marrantatuta dagoelako. Horrelako zerbait iruditu zitzaigun, ibili beharreko bide bat falta da ideia biribiltzeko.

Proposamenak badu alde on bat: bertsio eskuragarri bat lortu nahi du, eskuragarri beharbada, oso desegituratua dramaturgiari dagokionez, baina taldeak sinesgarritasun tonua lortzen du interpretazioan eta zuzendaritza anekdotikoan eraginkorrago ageri da sakonean eta mamian baino. Eta, oro har, lan interesgarria lortu dute.

Carlos Gil Zamora

**Zuzendaritza:** Pako Revueltas -**Dramaturgia:** Ángel Mirou -**Antzezleak:** Enriqueta Vega, Ramón Ibarra, Josu Camara, Eneritz Artetxe, Na Gomes -**Ekoizpena:** Arriaga antzokia.